fiare bancaetica

Lan egin **BANKU ETIKOAN**

Bilboko bulegorako zuzendaria

Banca Etica

Banketxeen artean, finantza etikoen kooperatiba-entitate bakarra gara.
Interes kolektiboko errealitateak soilik finantzatzen ditugu: gizarte-lankidetzatik nazioarteko lankidetzara, ingurumena zaintzetik kulturaren sustapenera, energia berriztagarrietatik hurbileko nekazaritzara nahiz nekazaritza ekologikora.

Lanpostua

Espainiako sukurtsaleko plantillan sartzeko pertsona baten bila gabiltza, Bilboko bulegoko arduradunaren lanpostua garatzeko. Haren jardun-esparrua Espainiako iparraldea izango da, eta talde komertzialaren eta gure bezero-zorroaren kudeaketaren ardura izango du. Azken batean, bulego komertzial bateko zuzendari-lanak egingo dituen pertsona baten bila gabiltza.

- Bilboko bulegoari atxikitako pasiboko/aktiboko bezeroen zorroaren arduraduna izatea.
- Bulegoko taldea kudeatzea, lehendik dagoen bezeroen zorroa handitzeko eta finkatzeko, eta, hala, negozio-aukera berriak sortzeko.
- Bulegoaren plan komertziala planifikatzea eta proposatzea, erakundearen irizpideen arabera, baita Bilboko bulegoaren kudeaketan egin litezkeen hobekuntzak ere.
- Bilboko bulegoa osatzen duten profesionalen taldea kudeatzea (helburuak proposatuz, haien jarduna ebaluatuz eta hazkunde profesionala bultzatuz).

Lan-baldintzak

Laneko egoitza: Bilbo

Kontratu-mota: mugagabea

Soldata: negoziagarria, profilaren arabera, betiere Fiare BEren soldata-eskalaren barruan

Baldintzak

- Geografian zehar mugitzeko prest egotea.
- Finantzekin lotutako unibertsitate-ikasketak (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Ekonomia, Zuzenbidea edo antzekoa).
- Euskaraz jakitea.
- Merkataritzarako eta salmentarako trebetasunak.
- Finantza-sistemaren funtzionamendu orokorra ezagutzea eta, bereziki, bankuko produktu eta zerbitzu nagusiena.
- Proiektukako antolaketa eta kudeaketa egiteko gaitasuna.
- Taldeen kudeaketarako gaitasuna eta esperientzia frogagarria.

Honako hauek baloratuko dira

- Prestakuntzako ziurtagiri eguneratuak (MIFID, LCCI...).
- Ekonomia Soziala eta Hirugarren Sektorea ezagutzea.
- Ingelesez eta/edo italieraz jakitea (bietako bat gutxienez).
- Boluntariotzan esperientzia izatea.

Zer eskaintzen dugun

- Bazkideak eta bezeroak ardatz dituen proiektu batean lan egiteko aukera.
- Aukera ezin hobea, garatzen ari den proiektu batean parte hartzeko; izan ere, hori dela-eta, profesional berriak behar ditugu egungo giza taldea osatzeko.
- Eguneroko lanean finantza etikoen printzipioak garatzeko aukera.
- Giro aproposa hobetzen eta ikasten jarraitzeko, banakako zein taldeko heziketa-prozesuen bidez.
- Bizitza eta lana uztartzeko politikak, enpresako pentsio-plana…

BALDINTZAK BETETZEN dituzu? AURKEZTU ZURE HAUTAGAITZA 2024/10/04 BAINO LEHEN.

Eraiki dezagun elkarrekin ekonomia berri bat!